

BOZERAMAILEEN DEIA

AZAROAK 25 EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZINOARTEKO EGUNA

Emakume izate hutsagatik haien kontra egiten diren indarkeriazko eraso guztiek osatzen dute emakumeen aurkako indarkeria.

Hori dela-eta, indarkeria sexista kasu guztiak gaitzesteko, zapatuan, **11:00etan 2km-ko martxa bat antolatu da.** Ibilaldi hau Lameran hasi eta amaituko da. (Lamera, Lope Diaz de Haro, Prantzizko Deuna, Ispizua tar Segundo, Erreten Lamera Askatasun Bidea, Erreñe-Zubi, Ispizua tar Segundo, Erreten Lamera, Bermeoko Portua eta Lamera). Parte hartzaileei puntu liladun motxila bat eta pin bat banatuko zaizkie.

Ondoren, alkateak, Erroxape emakumeen elkarteak, herriko ikastetxeek eta Zulai Agirrek (Eskubaloi jokalaria) adierazpenak egingo dituzte.

Animatu eta parte hartu!

Bermeon, 2017ko azaroaren 20an

ALKATEA
Idurre Bideguren Gabantxo

EH BILDU
Benito Ibarrolaza Munitiz

EAJ/PNV
Aritz Abaroa Cantuariense

GUZAN
Xabi Ortuzar Butron

IZARTU BERMEO
Sergio Ugalde Zabala